

**EAEko Udal Entitateen
Kontuei buruzko txostena**

**Informe sobre las Cuentas
de las Entidades locales
de la CAPV**

1998

AURKIBIDEA/ÍNDICE

I. SARRERA	4
II. ONDORIOAK	5
II.1 UDAL KONTUAK	5
II.2 UDALAZ GAINDIKO KONTUAK	6
II.3 UDALAREN FINANTZA EGOERA	6
II.4 UDALAZ GAINDIKO ENTITATEEN FINANTZA EGOERA.....	7
III. AZALPEN ATALAK	9
III.1 UDALAK	10
III.1.1 1998. urtealdiko kontuak.....	10
III.1.2 Udalen finantza egoera 98/12/31n.....	16
III.2 UDALAZ GAINDIKO ENTITATEAK	32
III.2.1 1998. urtealdiko kontuak.....	32
III.2.2 Udalaz gaindiko entitateen finantza egoera.....	35
I.INTRODUCCIÓN	42
II.CONCLUSIONES	43
II.1 CUENTAS MUNICIPALES	43
II.2 CUENTAS SUPRAMUNICIPALES.....	44
II.3 SITUACIONES FINANCIERAS MUNICIPALES	45
II.4 SITUACIONES FINANCIERAS DE LAS ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES ..	45
III. APARTADOS EXPLICATIVOS	47
III.1 AYUNTAMIENTOS	48
III.1.1 Cuentas del ejercicio 1998	48
III.1.2 Situación financiera municipal al 31/12/98.....	54
III.2 ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES	69
III.2.1 Cuentas del ejercicio 1998	69
III.2.2 Situación financiera de las entidades supramunicipales.....	74

IV.ANEXO	80
IV.1 LIQUIDACIONES AGREGADAS DE LAS ENTIDADES LOCALES	80
IV.2 DEFICIENCIAS EN EL CONTENIDO FORMAL DE LA CUENTA GENERAL DE LOS AYUNTAMIENTOS	88
IV.3 DEFICIENCIAS CUALITATIVAS EN EL CONTENIDO DE LA CUENTA GENERAL DE LOS AYUNTAMIENTOS	97
IV.4 RATIOS FINANCIEROS DE LOS AYUNTAMIENTOS PARA EL EJERCICIO 1998	106
IV.5 LIQUIDACIÓN AGREGADA DE LAS ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES DE LA CAPV	115
IV.6 DEFICIENCIAS EN EL CONTENIDO DE LA CUENTA GENERAL DE LAS ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES	117
IV.7 DEFICIENCIAS CUALITATIVAS EN EL CONTENIDO DE LA CUENTA GENERAL DE LAS ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES	118
IV.8 RATIOS FINANCIEROS DE LAS ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES PARA EL EJERCICIO 1998	119
IV.9 RESUMEN DE LAS LIQUIDACIONES DE LOS AYUNTAMIENTOS DEL EJERCICIO 1998	121
IV.10 RESUMEN DE LAS LIQUIDACIONES DE LAS ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES DEL EJERCICIO 1998	129
ALEGACIONES	130

Vitoria-Gasteiz, 2001eko apirilaren 3a
Vitoria-Gasteiz, a 3 de abril de 2001

I. SARRERA

Epaitegi honek Euskal Autonomia Erkidegoko udalen eta udalaz gaindiko entitateen 1998ko Kontu Orokorraren azterketari ekin dio, 1999. urtealdirako duen Lan Plangintza betetzearren; lanaren helburua kontuen eduki formala egiaztatzea eta urtealdi horretako toki alorraren finantza egoera aztertzea izan da.

Aurreko urteetan bezala, txosten honetan aztertutako kontuak 1997an EAEn zeuden 250 udal administrazioenak eta udalaz gaindiko 56 entitateenak dira. Talde horretan partzuergoak sartzen dira (entitate horien xedea basa-jarduerak ustiatzea da). Honenbestez, ez dira barne hartu ez erakunde autonomoak ez sozietate publikoak ere.

Kontu globalak 250 udalek eta udalaz gaindiko 45 entitatek igorritako likidazioak txertatzen dira (EAEko udalen multzoa eta haien lurraldeen arabera banaketa, batetik, eta udal erakundeen multzoa eta haiek emandako zerbitzu motaren arabera banaketa, bestetik); likidazio horiek, ordea, ez dira fiskalizatu (ikus IV.1 eta IV.5 eranskinak).

Txosten honetan ematen diren ondorioak 2.098.628 biztanleri dagozkie, izan ere, horiexek baitira eskatutako informazioa igorri duten Euskal Autonomia Erkidegoko udaletan 1998ko urtarrilaren 1ean zeudenak.

I.1 LANAREN ABIABIDEA

Lana egiteko ondoko prozedura hauek erabili ditugu:

- 1998. urtealdiko Kontu Orokorraren azterketa, HKEEn 2000ko urtarrilaren 17a bitartean jasotakoak (ikus III.1.1.1). Azterketa honek balio izan du bai ekonomia arloko ondorioak lortzeko, bai eta, informatzeko beharrari dagokionez, udal entitateek legeria zein neurritan bete duten zehazteko ere.
- Balantzeen eta Emaizten Kontuen edukiaren berriazko azterketa, udal eta udalaz gaindiko entitate guztiei egina.
- Diruzaintzako Gerakinaren kalkuluan zordun kobragaitz edo kobraezinezkoengatik aplikatutako kenkariaren zentzuzkotasunaren azterketa.

II. ONDORIOAK

II.1 UDAL KONTUAK

Ondorio hauek Euskal Autonomi Erkidegoan dauden 250 udalek bidalitako informazioaz baliatuz atera dira.

Aurrekontuak, Likidazioak eta Kontu Orokorrak

- Lau udaletan ez da ageri aurrekontuak 1998ko urtealdian onartu izan direnik; 139k lehenengo seihilekoan onartu dituzte eta 23k, berriz, urtealdiko bigarren seihilekoan.
- Aurrekontu likidazioak ezargarria den araudiak agintzen duen data baino beranduago oniritzi dira 52 udaletan, eta bitan ez da onartu direnik ageri.
- 54 udaletan ez da ageri, txosten hau egin dugun datan (2000ko maiatza), Kontu Orokorra oniritzi dutenik; eta 81 udalek aurrekontuei buruzko araudian ezarritako dataren ondotik oniritzi dute.

Ondare Kontabilitatea

- Hogeita bost udalek (%10) ez dute Balantzea edo/eta Galdu-Irabazien Kontua bidali. Udal hauek Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan daude eta, batik bat, 5.000 biztanletik beherako udalerrietakoak dira

Edozein modutan, udallean ezarritako ondare kontabilitateak, kasu askotan, ez du oraindik eduki egokirik. Horrela, esate baterako, 91 udalek ez dituzte ibilgetuaren amortizazioak gehitu Balantzean eta Galdu-Irabazien Kontuan.

Beste ezaugarri hauek ere aurrekoa indartzen dute: 5 udaletan Balantzearen aktiboa eta pasiboa ez datoz bat, eta 69 udalerritan ez dira zordun kobragaitzak ondare kontabilitatean azaltzen, nahiz eta Diruzaintzako Gerakinaren kalkuluan sartu.

Diruzaintzako Gerakinak

- Udal guztiek Diruzaintzako Gerakina urtealdi itxieran kalkulatzeko badute ere, 41 udalek ez dute Diruzaintzako Gerakina kalkulatzeko kobratzeko zailtasunak dituzten saldoak bereizten; horrenbestez, udal horiek kalkulatzeko Diruzaintzako Gerakinaren kopurua sarreraren kobragarritasunaren arabera legokiokeena baino handiagoa izan daiteke.
- Gerakinaren kalkuluan zordun kobragaitzen edo kobraezinen kontzeptu gisa zenbateko bat jarri duten 177 udaletatik 54k ez dute sarreraren 1, 2, eta 3 kapituluetakoz zorrak, 24 hilabete baino gehiagokoak estaltzeko adinako zenbatekorik jarri.
- 1996ko abenduaren 31n gastu orokorretarako Gerakin negatiboa zuten 36 udaletatik 5ek ez dute hura 1998ko urtealdi itxierarako finantzatu, EAEn Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko Erregelamenduak oniritzen dituzten foru-dekretuen 60. artikulua urratuz.

Diruzaintza Kontua

- Lau udalek ez dute Diruzaintzako Konturik egin eta aurkeztu dituztenetik seik deskoadreak dituzte. Egoera honek udal diruzaintzak behar hainbateko kontrolik ez duela adierazten du eta horregatik, egoera onera ekartzeko beharrezko neurriak bideratu behar dira.

II.2 UDALAZ GAINDIKO KONTUAK

- Udalaz gaindiko sei entitatek ez dituzte 1998ko urtealdiari dagozkion kontuak igorri. Ezin gehitu izan dira ondoko entitate hauen kontuak, izan ere, horien egituraketa ez baitator bat aurrekontu-leggedian finkatutakoarekin, informazio osagabea bidaltzeagatik edo beren aktibitatea 1998an hasteagatik:

Gastronomiaren Euskal Museoa Partzuergoa.	Durangoko Eskualdeko Hiltegiaren Mankomunitatea.
Entziako Partzuergoa	Lautada-Elgeako Mendizerraren Ur Partzuergoa
Iturrietako Partzuergoa	

Aurrekontuak, Likidazioak eta Kontu Orokorrak

- 24 entitatetan aurrekontuak 1998ko lehenengo hiruhilekoan onartu zituzten, 4 entitatetan, berriz, bigarrenean, eta 1ean ez da agertzen aurrekontuak onartu dituztenik.
- Hamalau entitatek aurrekontu-likidazioa foru-araudiak agintzen duen data baino beranduago oniritzi zuten.
- 6 entitatetan Kontu Orokorra aurrekontuari buruzko araudiak agindutako data baino beranduago oniritzi zen eta 15 entitatetan ez da inon ageri, txosten hau idatzi dugunerako, kontu orokorra oniritzi izan denik.

Ondare kontabilitatea

- Zazpi entitatek ez dute ondare kontabilitaterik aurkeztu. Aurkeztu duten 38etatik 13k, berriz, ez dute ibilgetuaren amortizazioei egiten zaizkien horniketen kalkulua ateratzen; huts hori zuzendu egin behar da, hartara, finantza egoerek ondare egoera zuzen azal dezaten.
- 6 entitatek soilik ez dute egin ingresatzeko dauzkaten dirusarreraren kobragarritasunari buruzko azterketarik, nahiz eta 3. kapituluko zordunak eduki, 24 hilabeteko antzintasuna baino gehiagokoak.

II.3 UDALAREN FINANTZA EGOERA

- Udalaren finantza egoeraren bilakaera 1998ko urtealdian positiboa izan da, eta sarrera aruntak eta aurrezki garbia nabarmen gehitu dira urtealdi honetan.

- 1998ko urtealdiko inbertsio maila aurreko urtealdikoa baino %29 handiagoa izan da eta udalaren berezko baliabideei dagozkien inbertsioen finantzaketak gora egin du, %57ra arte igoz, 1997an %42koa izan zelarik.
- Biztanlekako gastu osoaren gehikuntza %4,4koa izan da 1997ko urtealdiaren aldean, inflazioaren ondorioz gertatutakoa baino altuagoa.
- Biztanlekako gastua handiagoa da 50.000 biztanle baino gehiagoko eta 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalengan; lehenengoaren kasuan, funtzionamendu-gastuak gehiago izan direlako eta, bigarrengoaren kasuan, biztanle bakoitzeko gehiago inbertitu delako.
- Orokorrean udalaren presio fiskala handiagoa da biztanlegoa handiagoa den neurrian; horrela, zerga, tasa eta prezio publikoetatik eskuratzen diren sarreraren batez bestekoa 55.396 pezetakoa da biztanleko. Magnitude honen gorakada, 1997koaren aldean, %10ekoa izan da.
- Dirulaguntza kontzeptuan biztanle bakoitzarengatik eskuratutako dirusarrerak nabarmen handiagoak dira 1.000 biztanle bakoitzeko udalerrietan; izan ere, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurraldeetako Udal Finantzaketarako Foru Fondoen transferentzietan gutxienezko kopuru batzuk finkatzen baitira, udalerraren tamaina, ahalegin fiskala, e.a. edozein dela ere. Araban, berriz, gastu arrunterako dirulaguntza-sarrerak beste lurraldeetan baino handiagoak dira, baina ez dira biztanle gutxiago udalak berariaz hobesten.
- Biztanlekako zorra handiagoa da biztanlegoa handiagoa den neurrian, 20.000 eta 50.000 biztanle arteko udalen kasuan izan ezik. Azken horietan biztanlekako zorra urriagoa da, 5.000 eta 10.000 biztanle arteko udalaren antzekoa. Egoera hori Leioa, Galdakao, Sestao, Santurtzi eta Durangoko udalen zor urriagoaren ondorioz sortzen da.
- Udalen inbertsio erreal garbia (burututako inbertsioak, besterenganatzeak kenduta) 20.648 pezeta igo da biztanleko 1998an, udalerraren tamainuarekiko alderantzizko izanik.
- 1998ko urtealdi itxieran udal inbertsioak datuetatik eskuratu den gehitutako udal zorpidetza 123.162 milioi pezetakoa izan da; horrek biztanleko 58.687 pezeta egiten ditu, kopuru hori dezentekoa da eta 1997ko urtealdiarekiko igoera txiki bat izan du (60.812 pezeta biztanleko).

II.4 UDALAZ GAINDIKO ENTITATEEN FINANTZA EGOERA

- Udalaz gaindiko entitateen zorpidetza 98/12/31n 69.146 milioi pezetakoa izan da; horietatik 62.260 milioi pezeta (%90) Bizkaiko Garraio Partzuergoarenak dira, Bilboko Metroaren eraikuntzaren ardura izan duen entitatearenak, alegia; horrek inbertsio kopuru handia sortu du, Partzuergoak jaulkitako zorraren eta Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak emandako kapital dirulaguntzen bidez finantzatua. Partzuergo honen inbertsioa 1998. urtean, I. linearen eraikuntza-lanak amaitzearen ondorioz urritu egin bada ere, II. linea eraikitzearekin gerora berriz gehituko da, izan ere, aurreikusitako inbertsioa 89.368 milioi pezetakoa zen, 1998ko abenduko Inbertsio Planaren arabera.

- Suhiltzaile zerbitzua ematen duten entitate eta partzuergoen inbertsio maila handia da. Beren finantzaketa, %81 eta %52, hurrenez hurren, kapital dirulaguntza bidez egiten da batik bat.
- Udalaz gaindiko entitateek 1998ko urtealdi itxieran finantza egoera osasuntsua daukate; horietatik 8 salbuespen dira, Diruzaintzako Gerakinaren saldoa, zorra kenduta, negatiboa dutelako eta hori konpentsatzeko behar adinako aurrezki ahalmenik ez dutelako. Hala ere, udalaz gaindiko entitateen finantzaketa egitura kontuan izanik, finantza egoera neurri handi batean asoziatutako enteen ekarpenen eskutan dago.
- Eskaintzen dituzten zerbitzuen finantzaketa, uren horniketan eta saneamenduan diharduten entitateen kasuan izan ezik, nagusiki dirulaguntza arrunten bidez egiten da, dirusarreraren 4. kapituluan erregistratzen direnak. Gestio eraginkorragoa burutzeko, udalaz gaindiko entitateek kalkulatu beharko lukete eskainitako zerbitzuen kostua eta dirutan kobratu ente asoziatuei ematen dieten zerbitzuen erabileraren arabera. Era horretan superabitak edo defizitak adieraziko luke zerbitzu emanketaren eta udalaz gaindiko entitateen gestioaren eraginkortasuna edo eraginkortasunik eza.

III. AZALPEN ATALAK

LEGE ARAUDIA

Toki Entitateentzako aurrekontu gaietako estatuko araudia, udalaz gaindiko izaera dutenentzako barne, segidako arauok osatzen dute: Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legea; Toki Ogasunak Arautzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legea; aurreko legea aurrekontu gaietan garatzen duen apirilaren 20ko 500/90 ED; Toki Entitateen aurrekontuen egitura finkatzen duen 1989ko irailaren 20ko Agindua; eman diren kontabilitate-agindu ugariak.

EAEren Lurralde Historikoetan bada foru entitateek eurek ebatzitako berezko araudi bat, Toki Ogasunak arautzen dituzten Foru Arauek, Toki Entitateen aurrekontuko Foru Arauak eta Toki Entitateen Aurrekontu Erregelamenduek osatzen dutena.

Foru Dekretuen bidez garatu dira aurrekontuei buruzko Foru Arauak Lurralde Historiko bakoitzean, bai aurrekontuei eta bai Kontabilitate Publikoari dagokienetan ere, eta, ondorioz, Aurrekontuen Erregelamendua, Kontabilitateari buruzko Instrukzioak eta Toki Entitateen Kontabilitateari buruzko Planak eratu dira.

Euskadiko Auzitegi Nagusiak erabat eta berez baliogabe izendatu ditu aurrekontuko Foru Arauak, 1994ko uztailaren 15ean Bizkaia eta Gipuzkoarako eta 1995eko azaroaren 9an Arabarako. Halaz guztiz ere, hiru Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiek eta Foru Diputazioek Auzitegi Gorenaren aurrean horren baliogabetze eskea aurkeztu dute (kasazio errekurtsua). Gipuzkoari dagokionez, 1996ko martxoaren 7an onartu da, Bizkaiari dagokionez, 1995eko urtarrilaren 27an eta Arabari dagokionez, berriz, 1996ko apirilaren 26an.

Foru arauketaren eta estatukoaren arteko alderdirik adierazgarrienak ondoko alderdiotan zehazten da:

- 1.** Foru araudiak ez du udal entitateen aurrekontuen kopia Estatuko Administrazioari derrigorrez bidali behar zaiola agintzen.
- 2.** Aurrekontuei buruzko foru arauak 23. artikuluan, kreditu osoaren figura sortzen dute; kreditu horrek ez dezake ordainketa kredituen guztizko zenbatekoaren %5 gainditu, kreditu osoa bera barne, beharizan berriei aurre egiteko, beste ordainketa kreditu batzuen hornidura eskasiei aurre egiteko eta kreditu zabalgarrien finantzaketarako. Irudi hori ez du estatuko araudiak jasotzen.
- 3.** Aurrekontuei buruzko Foru Arauen 24.4 artikulua kreditu berez zabalgarri bat ezartzen du, langileen derrigorrezko gizarte aurreikuspenaren erregimenari dagozkion obligazioei aurre egiteko, erregimen horrek kontribuzio erregimenean izaten dituen aldatetarik eratoritzen direnak.
- 4.** Udalbatzako lehendakariak, Aurrekontua Betearazteko Arauan hala aurreikusia badago, guztiak pilaturik urteko aurrekontuaren %5ekoa baino igoera handiagoa egiten ez duten kreditu gehigarriak oniritz ditzake.

5. Foru araudiak alkate-lehendakariari eskumen handiagoa ematen dio aurrekontu aldaketei dagokienez, eta udalaren osokoari kendu.

6. Foru araudiak berariaz adierazten du eragiketa arruntek eragindako sarrerak gutxienik izaera bereko gastuen pareko izan behar dutela, gehi zorpidetzagatiko amortizazio gastuak.

1999ko urriaren 25ean Gipuzkoako Foru Aldundiak eta lurralde horretako Batzar Nagusiek jarritako kasazio errekurtsuori buruzko epaia eman zuen Auzitegi Gorenak. Horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako epaia berretsi zuen, ulertzen baitzuen aurkatutako Foru Araua udal entitateen aurrekontu eta kontabilitate arloan eskumenik ez duen entitate batek eman zuela –Batzar Nagusiek– eta, horrenbestez, arau hori baliogabetu egin zuen.

Txosten hau lantzen aritu garen datan botazioaren eta epaiaren zain zeuden beste lurraldeetako Foru Aldundi eta Batzarrek jarritako errekurtsuak.

III.1 UDALAK

Txosten hau egiteko eta atal bakoitzean jaso ditugun ondorioak lortzeko honako biztanlego-maila hauek bereizi ditugu:

MAILA	UDAL KOP.	BIZT. KOP. 98.1.1ean
> 50.000	7	1.043.540
20.001 - 50.000	10	328.302
10.001 - 20.000	23	335.813
5.001 - 10.000	23	166.369
1.001- 5.000	76	174.299
< 1.000	111	50.305
EAE GUZTIRA	250	2.098.628
ARABA	51	284.595
BIZKAIA	111	1.137.594
GIPUZKOA	88	676.439

III.1.1 1998. URTEALDIKO KONTUAK

III.1.1.1 UDAL KONTUEN EDUKIETAKO HUTSAK

Lurralde Historiko bakoitzak onartutako Toki Entitateen Aurrekontuzko Foru Arauen VII. kapituluak (TEAFA) aurrekontuen likidazioa arautzen du.

Honela, Foru Arau horien 47. artikulua likidazio bakoitzak bildu behar dituen agiriak zerrendatzen ditu.

Berebat, TEAFAREN 62. artikulua Kontu Orokorraren edukia finkatzen du, urtealdian egindako aurrekontuzko, aurrekontuz kanpoko, ondarezko eta diruzaintzako eragiketa guztien erakusgarri.

Txosten hau egiteko, udalei ondotik adierazten diren agiri hauek eskatu zaizkie:

- 1998ko udal aurrekontua Agintaritza Aldizkarian argitaratu izanaren kopia eta aurrekontuaren hasierako onarpen data.
- 1998. urtealdiko aurrekontu likidazioari oniritzia ematen dion dekretua.
- 1998. urtealdiko aurrekontuaren likidazio espedientea, Toki Entitateentzat Aurrekontuzko Erregimenari buruzko Foru Arauaren 47. artikulua agindutako edukiaren arabera.
- Kontu Orokorrari oniritzia emanez osoko bilkurak hartutako erabakiaren egiaztagiria.
- 1998. urtealdiko Kontu Orokorra, Toki Entitateen Aurrekontuzko Erregimenari buruzko Foru Arauaren 62. artikulua agindutako edukiaren arabera.

1996 eta 1997. urtealdiko diagnosi txostenean adierazi genuen moduan, berriz azpimarratu behar dugu ezinbestekoa dela Kontu Orokorrak espediente bakar bat osatzea, bertan indarreko araudiak agintzen duen agiriak bilduko direla.

Udalek igorri duten agirien edukia aztertzeari dagokionez, bi huts mota bereizi ditugu:

- Kontu Orokorraren eduki formalean eragina duten hutsak.
- Udalen kontu orokorren informazioaren eduki kualitatiboan eragina duten hutsak.

Udal bakoitzean aurkitu ditugun hutsak IV.2 eta IV.3 eranskinetan adierazten dira.

Bestalde, 104 udaletan, udalerrien %42 egiten dutenak, ez da txosten honen IV.2 eta IV.3 eranskinetan adierazitako inongo hutsik aurkitu, 1997ko urtealdian egoera horretan zeuden 88 udalen aldean; horietatik %44 Arabako Lurralde Historikoan kokatuak daude, %26 Bizkaian eta gainerako %30 Gipuzkoan.

KONTUEN EDUKI FORMALEAN ERAGINA DUTEN HUTSAK

Segidako taulak garrantzizkotzat jo ditugun huts formalak laburbiltzen ditu. Hutsak HKEEren aurrean 1998ko urtealdiko kontuak aitortzeko obligazioa bete duten 250 udalen kontuetatik eskuratu ditugu. Era berean, 1997ko urtealdian topatutako huts kopurua sartu da taulan, udal kontuen eduki formalaren bilakaera ikusi ahal izateko.

HUTSA	UDAL KOP. 1997	UDAL KOP. 1998	1998 %
Kontu Orokorra oniritzi izanaren egiaztagiririk ez dago.....	37	54	%22
Ez da Balantzea edo Galdu-lrabazien Kontua barne hartzen.....	21	25	%10
Ez da Finantzaketa Taula barne hartzen (5.000 biztanletik gora)	3	5	%2
Ez da ibilgetuari buruzko informaziorik jasotzen.....	89	67	%27
Ez da udal zorrari buruzko informaziorik jasotzen	18	1	%0
Ez da memoriarik egiten.....	55	48	%19
Ez da Aurrekontu Emaizaren kalkulua jasotzen.....	10	6	%2
Ez da Diruzaintza Gerakinaren kalkulua jasotzen	1	-	-
Ez da Diruzaintzako Kontua jasotzen	8	4	%2

- Hogeita bost udalek ez dute Balantzerik edo/eta Galdu-Irabazien Konturik eta, horrenbestez, hortik ondorioztatzen da ondare kontabilitatea oker ezarria dutela. Horietatik 18 5.000 biztanletik beherako udalerrietakoak dira.
- Sei udaletan aurrekontuaren likidazioan ez da sartzen Aurrekontu Eraitza. Horietatik 4 5.000 biztanletik beherako udalerrietakoak dira.

INFORMAZIOAREN EDUKI KUALITATIBOAN ERAGINA DUTEN HUTS FORMALAK

Kontu Orokorra osatzen duten zenbait egoeratan bildutako informazioan aurkitu diren hutsik nabarmenenak azalduko dira ondoko taulan.

HUTSA	UDAL KOPURUA		1998
	1997	1998	% (A)
Balantzeak edo Galdu-Irabazien Kontuak ez dituzte amortizazioak jasotzen ...	98	91	%40
Ez dira kalkulatzeko Urtealdiko Eraitzen zuzenketak	46	37	%15
Ez da kalkulatzeko Gerakina atxikitako finantzaketa duten gastuetarako	68	37	%15
Urtealdiko Diruzaintza Kontuan deskoadreak daude.....	4	6	%2
1 eta 2 kapituluetak sarrerak kobraketa bidez erregistratzen dira.....	34	25	%10
Gastuak ordaintzen arabera erregistratzen dira	20	10	%4

(A) % kalkulatzeko hutsari dagokion informazioa eman duten udal kopurua hartzen da oinarritzat.

- Balantzea eta Eraitzen Kontua aurkeztu duten 225 udaletatik 91k ez dituzte ibilgetuaren amortizazioak azaltzen, ez egoera batean, ez bestean. Horietatik 76 5.000 biztanletik beherako udalerrietakoak dira.
- Bost udalek aurkeztutako 98/12/31ko Balantze Egoeran aldeak daude aktibo eta pasibo totalaren artean.
- Gerakinetik saldo kobragaitza deduzitzen duten udaletatik 69k ez dute kopuru hori Ondare Kontabilitatean jaso.
- Diruzaintzako Kontua aitortzen duten 246 udaletatik 6k deskoadreak dituzte, bai zorrak eta hartzekoak koadratzen ez dutelako, bai eragiketek egiterapenarekin koadratzen ez dutelako ere.
- Hamabi udalek zor saldoa ikur negatiboz (zordun) aurkeztu dute. Gorabehera hori gertatu da Ondare Kontabilitatearen ezarpenean hasierako saldoak kargatzean akatsak izan direlako.
- Kutxako irizpideen arabera gastuak erregistratzen dituzten 10 udalek 1.200 biztanle baino gutxiago dituzte. Erregistro irizpide honen ondorioz, ordaintzeko eta, beraz, urtealdi itxieran erregistratzeko dauden burututako gastuen zenbatekoaz gainbaloratuta daude urtealdiaren Eraitza eta Diruzaintzako Gerakina.
- Zuzeneko eta zeharkako zergen kobrantzaren bidez sarrerak erregistratzen dituzten 25 udaletatik bostek bakarrik dituzte 1.000 biztanle baino gehiago.

Azpimarratu behar dugu udal horietan aurrekontuaren Eraitza eta Diruzaintzako Gerakina urtealdia ixtean, kaudimengabeziagatiko honiduraren kobrantza garbiaren eskubide gauzatugabeen zenbatekoaz gutxietsirik daudela.


III.1.1.2 UDALEN KONTUEI BURUZKO BESTE ALDERDI BATZUK

Aurrekontuen onirizpen data

EA Eren 250 udaletatik %34k bakarrik oniritzi ditu 1998ko aurrekontuak urtealdia hasi aurretik. Ondoko grafikoan aurrekontuak oniritzi dituzten udalen kopurua eta aldiak azalduko ditugu

AURREKONTUEN ONIRIZPENA

Udal kopurua.




Berariaz azpimarratu behar dugu aurrekontuak garaiz oniritzi behar direla, hartara, fondo publikoen kudeaketa kontrolatzeko baliabide modura erabili ahal izango dira.

Likidazioaren onirizpen data

Udalen %78k 1998ko urtealdiaren aurrekontu likidazioa 1999ko apirilaren 1a baino lehen oniritzi du; gainerakoek, berriz, aurrekontuei buruzko foru araudiak emandako epea urratu dute. Ondoko taulan 1998ko aurrekontuaren likidazioa denboran noiz oniritzi den jasotzen da.

LIKIDAZIOAREN ONIRIZPENA

Udal kopurua




Kontu Orokorraren oniritzen data

Udalen %46k baizik ez du Kontu Orokorra indarreko aurrekontu-araudiak emandako epean oniritzi.

Ondoko taulan Kontu Orokorra denboran noiz oniritzi den jasotzen da:

KONTU OROKORRAREN ONIRIZPENA

Udal kopurua



LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN AURKITUTAKO HUTS AMANKOMUNAK

Kontu Orokorrak aztertzean Lurralde Historiko bereko hainbat udali eragiten dieten hutsak topatu dira. Jarraian huts horiek lurraldeka sailkaturik zerrendatuko ditugu, datozen urtealdietan zuzen daitezten:

Udal kopuruak		
Kalkulu okerra		
	Aurrekontu emaitza	Diruzaintza Gerakina
Bizkaiko LH	16	14
Gipuzkoako LH	15	8

III.1.1.3 1996KO GERAKIN NEGATIBOEN FINANTZAKETA

- 96/12/31n gastu orokor negatiboetarako Gerakina zuten 36 udaletatik 5ek ez dute 98/12/31n bete eta, hortaz, EAeko Udal Entitateen Aurrekontu Erregelamenduek oniritzen dituzten foru dekretuen 60. artikulua urratu dute.
- 1996ko urtealdiko Gerakin negatiboa finantzatu duten 31 udalek era honetan egin dute:
 - Zortzi udalek Aurrekontutik gastu partidak urrituz.
 - Hogeita hiru udalek Gerakin positiboak lortu dituzte 1997 edo 1998an, eta horiekin berdindu dute aurreko saldo negatiboa.

III.1.1.4 ZORDUN KOBRAGAITZAK

Diruzaintzako Gerakina zehazteko udalek kobragaitzak edo kobraezinak irizten diren zordunak kendu behar dituzte. Indarrean dagoen aurrekontu arautegiak (Aurrekontuen Foru Arautegiko 48.6 art.) xedatzen du eskubide horiek zehazteko kontuan hartu beharko direla zorren antzinasuna, horien zenbatekoa, ingreso mota, zergabiltze ehunekoak eta balorazio zuzurra egiteko ezartzen diren gainerako irizpideak. Horrez gainera, eskatzen du kontuetan agertzen direnetik 24 hilabete baino gehiagoko antzinasuna duten behar bezala aitortutako eskubide guztiak kobragaitzat edo kobraezinezkotzat hartzea; kobrantzak, behar bezala bermatuak egoteaz gainera, likidazioaren ondorengo urtealdian gauzatzea aurreikusita dauden kasuetan izan ezik.

Kontu orokorrak aztertu ondoren egoera hauek topatu ditugu:

- Berrogeita bost udalek ez dute inongo zenbatekorik jarri zordun kobragaitz edo kobraezin gisa.

Horietako lautan ezin zehaztu izan da zorraren eraketa kontzeptu eta antzinasunaren arabera eta, honenbestez, ezin jakin daiteke kobraezintasunagatik dedukzioa egitea beharrezkoa den.
- Gainerako 41 udalek sarreren 1, 2 eta 3 kapituluetakoz zorrak izan arren, 24 hilabetetik gorako antzinasunekoak, ez da Gerakinetik horri dagokion kenkaria egin.
- Gerakinaren kalkuluan zordun kobragaitz edo kobraezinen kontzeptuagatik kopuru bat jarri duten 177 udaletatik 54k ez dituzte jarri 1, 2 eta 3. kapituluetakoz 24 hilabeteko antzinasuna baino gehiagoko zorrak estaltzeko adina.

Kobragaitzak edo kobraezinak diren zorrak behar bezala deduzitzen ez dituzten udalek aurkezten duten Diruzaintzako Gerakinaren zenbatekoa gainbaloratua dago eta, horren ondorioz, hurrengo urteetan finantza arazoak izan ditzakete zenbateko hori gastuak finantzatzeko erabiltzen badute.

III.1.2 UDALEN FINANTZA EGOERA 98/12/31n

Euskal udalen finantza egoera 98/12/31n nolakoa zen aztertzeko, HKEEari eskuratutako udalen kontuei buruzkoa den txosten honetako IV.9 eranskinean jasotako datuak erabili dira.

Aurrez aipatutako informaziotik sektoreko datu atxikituak eskuratu ditugu; horiek osotasunean, biztanle maila eta lurraldeka finantza egoera aztertzea bideratzen dute.

Halaber, udalentsat eurentzat eta horiekin lotutako erakunde eta entitate guztientzat baliabide erabilgarri izateko helburua aurrejarri dugu eta, horretarako, udal bakoitzari dagokionez hainbat ratio eskuratu ditugu, era horretan homogeenak eta honenbestez, elkarrekin alderagarriak direlako (ikus IV.4).

III.1.2.1 DATU OROKORRAK

Urtealdi bakoitzeko datuak urtealdian kontuak aitortu dituzten udalei dagozkie eta honebestez, urtealdien artean alde daude, nahiz eta txikiak izan.


1996-1998KO BILAKAERA		Milioi pta					
MAGNITUDEA	AZALPENA				SARR. ARRUNT. GAIN. %		
		1998	1997	1996	1998	1997	1996
Sarrera arruntak	Sarrerren 1-5 kap.	243.651	219.350	207.494	% 100	%100	%100
Funtzionamendu gastuak	Gastuen 1, 2 eta 4 kap.	174.843	164.780	161.972	% 71,8	%75,1	%78,1
Finantza zama	Gastuen 3 eta 9 kap. (berfinantzaketatik garbi)	21.297	23.795	22.640	% 8,7	%10,8	%10,9
Aurrezki garbia		47.511	30.775	22.882	%19,5	%14	%11
Diruzaintza gerakina		57.768	41.381	27.643	%23,7	%18,9	%13,3
Zorpidetza (*)		123.162	126.920	125.259	%50,5	%57,9	%60,4

(*) Izendatutako zorpidetak ez du Elkarkidetzarekiko zor eguneratua barne hartzen (98/12/31n 2.392 milioi pezeta).

1996-1998 hirurtekoan aurrez azaldutako aldaki eta magnitudeen bilakaera mila milioi pezetan ondokoa da:

1996-1998KO BILAKAERA

Milaka milioi pezeta



Udalen finantza egoeraren bilakaera positiboa izan da aurreko urtealdien aldean, eta dirusarrera arruntek nabarmen egin dute gora, urtealdiaren KPI gehitu dena baino %8,7 gehiago, alegia (%2,3).


Urtealdiaren finantza zama %10 gehitu da 1997ko urtealdiaren aldean, nahiz eta 1996tik 1998rako aldiarekiko joera egonkorra erakusten duen. Bestetik, funtzionamendu gastuek aurreko urtealdiaren aldean %6 egin dute gora, eta aztergai izan dugun hiru urtekoan joera goranzkoa dela ikusi dugu.

Urtealdiaren aurrezki garbia, berriz, %54,4 gehitu da sarrera arrunten igoerak aldaki honen gainean duen eraginaren ondorioz.

Orain arte aipatu ez dugun baina hiru urtekoan gertatutakoaren ikuspegia osatzen duten beste datu batzuek egindako inbertsioen eta horien finantziazioaren berri ematen dute. Hurrengo grafikoak magnitude horien bilakaera erakusten digu.

INBERTSIOAK ETA FINANTZIAZIOAK

Milaka milioi pezeta



Inbertsioak %29 egin du gora aurreko urtealdiaren aldean.

Inbertsioen finantzaketa -59.817 milioi pezetakoa- %18an zorpidetza bidez egin da eta %24an beste erakunde batzuen dirulaguntza bitartez; %57 udalek autofinantzatu dute. 1998. urtealdian egindako inbertsio errealaren bolumenak udalen funtzionamendu kostuaren %36 osatu du.

III.1.2.2 DATU OROKORRAK LURRALDEKA BEREIZITA ETA BIZTANLE KOPURUAREN ARABERA MAILAKATUTA

Hona hemen aurreko atalean erabilitako aldakiak, biztanlegoaren eta Lurralde Historikoaren arabera bereiziak:

MAILA	Milioi pezeta						
	UDAL KOP.	SARRERA ARRUNTAK	FUNTZION. GASTUAK	FINANTZA ZAMA	AURREZKI GARBIA	DIR. GER. 98/12/31	ZORPIDETZA 98/12/31
> 50.000.....	7	127.874	95.147	10.886	21.841	21.127	73.355
20.001-50.000.....	10	31.427	22.731	3.499	5.197	7.860	15.205
10.001-20.000.....	23	39.152	25.919	3.692	9.541	13.734	20.206
5.001-10.000.....	23	17.973	12.958	1.587	3.428	4.466	8.463
1.001-5.000.....	76	20.254	13.590	1.220	5.444	7.500	4.721
< 1.000.....	111	6.971	4.498	413	2.060	3.081	1.211
EAE GUZTIRA	250	243.651	174.843	21.297	47.511	57.768	123.162
ARABA.....	51	39.009	27.374	1.272	10.363	17.006	8.665
BIZKAIA.....	111	119.282	89.979	9.604	19.699	18.792	57.277
GIPUZKOA.....	88	85.360	57.490	10.421	17.449	21.970	57.220

Aldaki horiek 50.000 biztanletik gorako udalen eta gainerakoen artean alderatzen baditugu, hona hemen aldeak:

MAGNITUDEA	Milioi pezeta				
	> 50.000	GAINERAKOA	EAE	SARR. ARRUNT. > 50.000	GAIN. %
Sarrera arruntak	127.874	115.777	%100	%100	%100
Funtzionamendu gastuak	95.148	79.696	%71,8	%74,4	%68,8
Finantza zama	10.886	10.411	%8,7	%8,5	%9
Aurrezki garbia	21.841	25.670	%19,5	%17,1	%22,2
Diruzaintza gerakina	21.127	36.641	%23,7	%16,5	%31,6
Zorpidetza	73.355	49.807	%50,5	%57,4	%43

Goiko tauletako ondorioak honako hauek dira:

- 50.000 biztanletik gorako udalek, sarrera arruntei dagokienez, gainerako udalek baino funtzionamendu gastu handiagoak dituzte, 6 puntu alegia. 1997an diferentziala 9 puntukoa zen eta, beraz hurbilketa bat gertatu da 50.000 biztanletik gorako udalen eta gainerakoen artean urtealdian funtzionamendu gastuetarako sarrera arrunten ehunekoari dagokionez. Hurbilketa horren arrazoa da sarrera arruntek gehiago egin dutela gora ehunekotan 50.000 biztanletik gorako udaletan besteetan baino eta, azken horietan, aldi berean, funtzionamendu gastuen gorakada erlatiboa handiagoa izan dela lehenengo taldeko udaletan baino.
- Lurralde historikoen artean alde nabarmenak daude 1998an. Aipagarria da, batetik, Arabako finantza egoera ona, urtealdiko finantza zamari dagokionez, %3,2ko finantza zama eta %22ko zorpidetza duena, eta, bestetik, Gipuzkoak duen zorpidetza handia, lurraldearen sarrera arrunten %67ra iristen dena eta bere sarrera arrunten %12,2ko finantza zama eragiten duena; haatik, garapen positiboa izan dute ehuneko hauek 1997ko urtealdiaren aldean, izan ere, sarrera arruntekiko zorpidetza %74koa eta finantza zama %12,6koa baitziren.

III.1.2.3 BIZTANLEKAKO RATIOAK

IV.4 eranskinean udalen zerrenda jaso da eta udal guztiak biztanlegoaren arabera hurrenkeratu dira, bakoitzari dagozkion ratioak adieraziz. Atal honetan ratio bakoitzean eskuratu diren emaitzak azalduko ditugu, biztanle mailaren eta Lurralde Historikoen arabera bereizirik.

Biztanlekako ratioak aztertzean kontuan hartu behar da 1998. urtealdiko inflazioa %2,3koa izan zela EAE eta Bizkaiarako, %1,2koa Arabarako eta %2,8 Gipuzkoarako.

III.1.2.3.1 Aurrekontu gastuei buruzko ratioak

Pta biztanleko

BIZTANLE TALDEA	UDAL KOP.	GASTUA 1997	GASTUA 1998(1)	FUNTZIONAM. GASTUA (2)	FINANTZA ZAMA (3)	INBERTSIOA (4)
> 50.000.....	7	133.427	135.222	91.178	10.431	26.815
20.001-50.000.....	10	90.360	98.484	69.238	10.658	18.023
10.001-20.000.....	23	109.542	115.651	77.181	10.994	25.850
5.001-10.000.....	23	108.644	118.967	77.886	9.539	29.562
1.001-5.000.....	76	124.077	138.098	77.972	7.000	51.796
< 1.000.....	111	155.283	163.457	89.419	8.214	65.416
EAE GUZTIRA	250	120.683	125.970	83.313	10.148	28.503
ARABA.....	51	124.993	137.851	96.186	4.468	36.766
BIZKAIA.....	111	118.250	116.339	79.096	8.443	22.466
GIPUZKOA.....	88	122.931	137.170	84.990	15.406	35.179


(1) Obligazio aitortuak, gastuen 1etik 9rako kap.

(2) Obligazio aitortuak, gastuen 1, 2 eta 4. kap.

(3) Obligaz. aitort., 3 eta 9. kap. zorra berfinantz. gastu garbiak

(4) Obligazio aitortuak, gastuen 6 eta 7. kap.

GASTUAREN BANAKETA BIZTANLEKO PEZETA KOPURUAREN ARABERA



- Biztanlekako gastu osoaren gorakada %4,4koa izan da 1997 eta 1998 bitartean, inflazioaren eraginari gaina hartuz.
- 1997an gertatu zenaren antzera, biztanlekako gastua nabarmenki altuagoa da 1.000 biztanle baino gutxiagoko udaletan, gastu estrukturalak (beren zeregina betetzeko beharrezkoak diren funtzionamendu gastuak) erakutsitako ratioaren kalkuluan duten eraginaren ondorioz; orobat, diferentzial handiena inbertsioetan ematen da.
- 50.000 biztanletik gorako udalen kasuan azpimarratzekoa da biztanle bakoitzeko gastuaren zenbatekoan dagoen aldea, izan ere, hiru hiriburuetan 130.000 pezeta baino gehiagoko gastua egiten da biztanleko eta, gainerakoetan, berriz, ez da 105.000 pezetara iristen, Irunen izan ezik (128.595 pta/bizt.).

Funtzionamendu gastuen artean pertsonal gastuak, erosketa eta zerbitzuak eta transferentzia eta dirulaguntza arruntengatiko gastuak sartzen dira.

1.000 biztanle baino gutxiagoko 19 udalek funtzionamendu gastuak %20 baino gehiago gehitu dituzte 1997ko urtealdiaren aldean. Gauza berbera gertatzen da 1.000 eta 5.000 biztanle bitarteko 4 udaletan.

Hauek izan dira pertsonal gastuak, biztanle taldeka eta lurraldeka banaturik:

BIZTANLE TALDEA	UDAL KOP.	LANGILE KOP.	BATEZB.ENPL. * 1.000 BIZT.	Milaka pezeta	Pezeta	SARR. GAINeko %	KORR.
				BATEZBES. GASTUA LANGILEKO.	LANGILEGAST. BIZTANLEKO		
> 50.000.....	7	6.838	6,6	5.604	36.719		29,97
20.001-50.000.....	10	1.975	6,0	5.177	31.142		32,53
10.001-20.000.....	23	2.146	6,4	5.221	33.363		28,62
5.001-10.000.....	23	971	5,8	5.476	31.957		29,58
1.001-5.000.....	76	1.085	6,2	4.964	30.901		26,59
< 1.000.....	111	398	7,9	4.143	32.780		23,66
EAE BATEZ BESTE	250	13.413	6,4	5.375	34.354		29,58
ARABA.....	51	2.429	8,5	5.457	46.577		33,98
BIZKAIA.....	111	6.769	6,0	5.331	31.724		30,25
GIPUZKOA.....	88	4.215	6,2	5.398	33.637		26,66

- Datu horietan ikusten da Arabako Lurralde Historikoa dela beste bi lurralde historikoekiko langile gastu handiena egiten duena biztanleko, eta gastu hori EAeko batez besteko gastuarekiko %36 altuagoa dela. Hori hala gertatzen da langile bakoitzeko kostua batez bestekoa baino pixka bat altuagoa delako eta, bereziki, 1.000 biztanleko dagoen enplegatu kopurua batez bestekoaren gainera dagoelako (2,1 enplegatu gehiago). Egoera hori Gasteizko eta Laudioko Udaletan nabarmentzen da, izan ere bi udal hauetan 1.000 biztanleko dagoen langile kopurua 8,9 eta 10,1ekoa da, hurrenez hurren.
- Estratu bakoitzean 1.000 biztanleko dagoen enplegatu kopurua ez da EAeko batez bestearekiko asko-asko aldentzen, ez bada 1.000 biztanletik beherako estratuan, izan ere, maila horretan 1,5 enplegatu gehiago dago, eta horren arrazoia da, batik bat, biztanle gutxiko udalei gutxienerako azpiegituraz hornitu beharra. Egoera hau Gipuzkoako Lurralde Historikoan gertatzen da gehien bat. Lurralde horretan 10 enplegatu daude 1.000 biztanleko.
- Enplegatu bakoitzeko egiten den batez besteko gastua beherantz doa biztanle kopurua baxuagoa den neurrian, salbu eta 5.000 eta 10.000 biztanle arteko estratuan, izan ere, maila horretan batez besteko gastua handiagoa da gainera 2 estratuekiko eta, are gehiago, baita EAeko batez bestekoarekiko ere.

Hauek dira 2. kapituluako gastuak, "Erosketak eta zerbitzuak", eta 4. kapituluakoak, "Transferentziak eta dirulaguntza arruntak", biztanle taldeka eta lurraldeka xehekatuak:


BIZTANLE TALDEA	UDAL KOP.	Pezeta/biztanle		sarrera korr. gaineko %	
		2. KAP. GASTUA	4. KAP. GASTUA	2. KAP. GASTUA	4. KAP. GASTUA
> 50.000.....	7	41.178	13.280	33,60	10,84
20.001-50.000.....	10	25.524	12.572	26,66	13,13
10.001-20.000.....	23	30.721	13.098	26,35	11,23
5.001-10.000.....	23	30.947	14.583	28,65	13,50
1.001-5.000.....	76	35.061	12.010	30,17	10,34
< 1.000.....	111	39.634	17.005	28,60	12,27
EAE BATEZ BESTE	250	35.700	13.227	30,75	11,39
ARABA.....	51	37.255	12.121	27,18	8,84
BIZKAIA.....	111	36.402	10.970	34,72	10,46
GIPUZKOA.....	88	33.864	17.489	26,84	13,86

III.1.2.3.2 Aurrekontuzko Sarrerei buruzko ratioak

BIZTANLE TALDEA	UDAL KOP.	Pta/biztanle			
		SARRERAK 1997	SARRERAK 1998 (1)	PRESIO FISKALA (2)	DIRULAG. ERAG. SARRERAK (3)
> 50.000.....	7	141.246	144.733	59.103	64.433
20.001-50.000.....	10	98.968	108.327	47.066	50.968
10.001-20.000.....	23	121.415	134.980	55.503	66.734
5.001-10.000.....	23	119.590	127.341	50.879	62.496
1.001-5.000.....	76	136.044	143.622	54.851	74.328
< 1.000.....	111	160.489	177.892	48.967	105.933
EAE BATEZ BESTE	250	129.806	136.801	55.396	64.358
ARABA.....	51	136.551	163.962	53.300	89.004
BIZKAIA.....	111	124.894	125.221	54.082	53.914
GIPUKOA.....	88	135.171	144.848	58.489	71.552

(1) Eskubide aitortuak, sarreren 1etik 9rako kapituluak. (2) Eskubide aitortuak, sarreren 1etik 3rako kapituluak.

(3) Eskubide aitortuak, sarreren 4tik 7rako kapituluak.

SARREREN BANAKETA (BIZTALEKO PEZETA KOPURUA)


Datu horiek aztertuta, hona hemen eskuratu ditugun datu adierazgarrienak:

- Ondotik zerrendaratzen diren 10 udalak dira biztanleko presio fiskal handiena dutenak:

	Presio fiskala (pta/bizt.)		Presio fiskala (pta/bizt.)		Presio fiskala (pta/bizt.)
Erribera Beitia	105.002	Loiu	113.165	Aduna	144.068
Plentzia	109.641	Legutiano	129.408	Belauntza	148.478
Laguardia	110.583	Astigarraga	131.231	Zamudio	169.340
				Burgelu	319.325

- Presio fiskal altuago honen arrazoiak hauek dira, batik bat:
 - Burgelu, Zamudio, Belauntza, Legutio eta Laguardiako Udaletako Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga, burututako eraikuntza jarduerak direla-eta.
 - Aduna, Astigarraga, Legutio eta Laguardiako Udaletako Ondasun Higiezinaren gaineko zerga, biztanle bakoitzeko balio katastrala batez bestekoaren gainetik dagoelako.
 - Zamudio, Aduna eta Loiuko Udaletako Jarduera Ekonomikoen gaineko zerga, industri maila handiagoa dagoelako.
 - Astigarraga, Plentzia eta Erribera Beitiako Udaletako tasa eta prezio publikoak, nahiz eta bidalitako likidazioak aztertuta ikusten den kapitulu honetan sartu behar ez liratekeen hainbat kontzeptu sartzen ari direla, hala nola hirigintza aprobetxamendua, administrazio emakiden ondoriozko sarrerak eta orube salmentaren ondoriozko sarrerak.
- Dirulaguntzek eragindako sarreraren banaketa (hainbat pezeta biztanleko), gastu arrunta eta kapital gastua finantzatzen dutenen artean, mailen arabera banatua, honako hau da:

ESTRATUA	Pta/bizt.											
	ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA			EAE		
	UDAL KOP.	DIRUL. ARR.	KAP. DIRUL.	UDAL KOP.	DIRUL. ARR.	KAP. DIRUL.	UDAL KOP.	DIRUL. ARR.	KAP. DIRUL.	UDAL KOP.	DIRUL. ARR.	KAP. DIRUL.
> 50.000	1	81.163	2.432	4	49.881	6.044	2	64.874	3.416	7	59.726	4.707
20.001-50.000	-	-	-	7	40.519	2.918	3	63.964	5.968	10	47.183	3.785
10.001-20.000	1	97.129	10.334	8	42.250	5.898	14	64.394	8.672	23	58.894	7.840
5.001-10.000	1	73.220	24.229	11	43.059	8.080	11	64.909	5.510	23	54.621	7.875
1.001-5.000	14	67.217	50.350	38	48.766	16.687	24	63.639	7.760	76	56.210	18.118
< 1.000	34	63.333	30.058	43	76.659	26.479	34	101.814	24.198	111	78.922	27.010
BATEZ BESTE	51	79.890	9.114	111	47.124	6.790	88	65.200	6.352	250	57.394	6.964

- Arau orokor gisa, kapital dirulaguntzak, udalerrietako biztanleriaren arabera, goitik beherako ordenean urritzen dihoaz.
- Arabako Lurralde Historikoan dirulaguntza arruntak handiak dira biztanleko pezeta kopuruari begiratzen bazaio beste lurralde batzuekin alderatuz gero, batez ere, Laudio eta Gasteizko udalerrien eragina dela eta, hurrenez hurren, 97.129 pezeta biztanleko eta 81.163 pezeta biztanleko jasotzen baitituzte, Lurraldeko biztanlego atalik handiena bilduz; berariaz aipatzekoa da Laudioko Udalarri gastu arruntetarako emandako dirulaguntza, saneamendu finantzarioa egiteko plangintzari atxikia.
- Guizaburuaga eta Burgeluko Udalak dira biztanleko kapital dirulaguntza handienak eskuratzen dituztenak, 254.534 eta 193.974 pezeta hurrenez-hurren.
- Segidan aipatzen diren udalak azpimarratzekoak dira, gastu arruntetarako, biztanleko 200.000 pezetatik gorako dirulaguntzak jasotzen dituztelako:

Udala	Dirulaguntza arrunta		Udala	Dirulaguntza arrunta	
	biztanleak	pta/bizt.		biztanleak	pta/bizt.
Arakaldo	92	207.728	Gaztelu	148	240.986
Guizaburuaga	131	223.405	Baliarrain	84	271.202
Altzaga	97	224.990	Orexa	80	318.613

- Kapital dirulaguntzen bidez finantzatutako kapital gastuen ehunekoaz aztertu da eta ikusi dugu 46 udalengan kapital dirulaguntza bidezko sarrerek kapital gastuen %75 gainditzen dutela. Ehuneko hori Erkidegoaren batez bestekoaren oso gainetik dago (%24).

Orokorrean ondoriozta dezakegu, exekuzio erritmoari aurre egiteko dirulaguntza aurrerakinen ondorioz, edo dirulaguntza bidezko finantziazioaren onespren atzerapenaren ondorioz, egoera hori gerta badaiteke ere, era berean, urtealdiko Emaidza doitzen duten eta Diruzaintzako Gerakinaren erabilgarritasuna mugatzen duten finantziazio desbideraketak erregistratu beharko liriatekeela.

Edozein modutan, Udal horien Kontu Orokorraren edukia egiaztatu eta gero ikusi da 42 udalek soilik kalkulatu dituztela finantziazio desbideraketak.

III.1.2.3.3 Aurrekontuko Emaitzei buruzko ratioak


BIZTANLE TALDEA	Pta/biztanle			
	UDAL KOP.	DIRUZAINZA GERAKINA (1)	AURREZKI GORDINA (2)	AURREZKI GARBIA (3)
> 50.000.....	7	13.620	31.361	20.929
20.001-50.000.....	10	21.835	26.488	15.830
10.001-20.000.....	23	32.264	39.409	28.414
5.001-10.000.....	23	22.936	30.146	20.608
1.001-5.000.....	76	41.590	38.231	31.231
< 1.000.....	111	59.845	49.145	40.931
EAE BATEZ BESTE	250	22.058	32.787	22.639
ARABA.....	51	56.808	40.884	36.417
BIZKAIA.....	111	10.918	25.759	17.316
GIPUZKOA.....	88	26.172	41.200	25.794

(1) Diruzaintza Gerakinean ez da sartzen erabili gabeko zorpidetza, udalerrien arteko datuak homogeneizatzeko asmoz.

(2) Aitortutako eskubideak, 1-5 kap., ken aitortutako eskubideak 1,2 eta 4 kap.

(3) Aurrezki gordina, ken finantza zama.

AURREKONTUKO EMAITZEN BANAKETA BIZTANLEKO PEZETA KOPURUAREN ARABERA



Eskuratu diren emaitzetatik honako hau da aipagarriena:

- Ondotik Diruzaintzako Gerakin negatiboa duten udal kopurua taldearen arabera zerrendaratuko da; diruzaintza hori datozen urtealdietan gastuari eutsiz edo zorpidetza bidez finantzatu beharko dute:

TALDEA	UDAL KOP.	TALDEAREN G. GUZTIZKOAREN %
> 50.000	1	%14,3
20.001-50.000	-	-
10.001-20.000	2	%8,7
5.001-10.000	1	%4,3
1.001-5.000	6	%7,9
< 1.000	4	%3,6
EAE GUZTIRA	14	%5,6
Araba	1	%2
Bizkaia	7	%6,3
Gipuzkoa	6	%6,8

III.1.2.3.4 Zorpidetza eta Finantza Zamari buruzko ratioak

Udalen artean datuak berdintzearen, udal zorpidetzaren barruan Elkarkidetzarekiko zor eguneratua barne hartu da, zenbait udalek zor hori finantza entitate batekin mailegu bat sinatuz amortizatu dutelako, eta udalerriek 98/12/31n erabilitako zorra soilik hartu da gogoan.

TALDEA	UDAL KOP.	ERABILITAKO	
		ZORPIDETZA 98/12/31 (1)	ZORPIDETZE MAILA (2)
> 50.000	7	65.876	%8,51
20.001-50.000	10	46.596	%11,13
10.001-20.000	23	54.971	%9,43
5.001-10.000	23	48.776	%8,83
1.001-5.000	76	27.776	%6,02
< 1.000	111	24.004	%5,93
EAE BATEZ BESTE	250	55.591	%8,74
ARABA	51	27.588	%3,26
BIZKAIA	111	47.000	%8,05
GIPUZKOA	88	81.821	%12,21

(1) Erabilitako aurrekontuzko zorra, Elkarkidetzarekiko zorra barne hartuta.
zamaren %.

(2) Sarrera arruntaren gaineko finantza

Ratio hauetan azpimarratu beharreko alderdiak:

- Biztanlekako zorra hazkorra da biztanle gehiago dituzten udalerrietan, 20.000 eta 50.000 biztanle bitarteko udalen taldean izan ezik; izan ere, horietan biztanleko zorra 10.000 eta 20.000 bitarteko biztanlegoko udalek dutena baino txikiagoa baita, Leioa, Durango, Basauri, Sestao, Galdakao eta Santurtziko udalen zor txikiagoaren eraginez.

- 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalen %44k eta 1.000 eta 5.000 biztanle bitarteko udalen %9k ez dute zorrik 98/12/31n.

Segidan zerrendatzen diren udalek 98/12/31n erkidegokoaren batez bestekoaren zorra baino nabarmen handiagoa dute, 55.591 pezeta biztanleko:

UDALA	BIZTANLEAK	ERABILITAKO ZORPIDETZA	Pta/bizt. (*) ZORPIDETZA MAILA
Orendain.....	150	200.000	%3,05
Mutiloa.....	158	363.766	%6,54
Navaridas.....	217	149.622	%15,94
Samaniego.....	305	124.397	%17,93
Irura.....	745	104.117	%12,94
Elgeta.....	984	101.043	%32,00
Zestoa.....	3.182	100.532	%17,01
Astigarraga.....	3.201	156.335	%8,81
Deba.....	5.032	104.737	%10,41
Villabona.....	5.408	102.708	%11,58
Legazpi.....	9.126	104.221	%12,28
Zumarraga.....	10.330	137.172	%14,50
Oñati.....	10.634	142.053	%14,98
Donostia-San Sebastian.....	178.229	123.659	%15,80

(*) Sarrera arrunten gaineko finantza zamaren %.

Taulan ikus daitekeen moduan, erabilitako zorra ez dago beti zorpidetza mailarekin lotua; izan ere, zorpidetza mailak maileguren birfinantzaketaren, gabezialdien eta horien iraupenaren eragina edo aurretiaz egindako amortizazioena jasotzen baitu.

- Udalen finantza egoera baloratu ahal izateko, elkarrekin aztertu dira jarraian zehazten diren ratioak eta ratio horien bilkaera 1997-1998 urtealdietan:

RATIOA	AZALPENA
D.G.- Zorra	(Diruzaintzako Gerakina - erabilitako Zorra) / biztanlegoa
Aurrezki gordina	(Sarrera arrunt. (C1, C2, C3, C4, C5) - Funtzionamendu gastuak (C1, C2, C4)) / biztanlegoa
Finantza zamaren %	Finantza zamaren % (C3 eta C9) / sarrera arruntak

Ratio horiek agertzen dute, batetik, udalek sortutako baliabideen egoera 98/12/31n, diruzaintza gerakina ken erabilitako zorraren arteko diferentzia gisa definiturik, eta, bestetik, udalek duten ahalmena datozen urteetan inbertsio egitasmoak hasteko, sortutako aurrezkiak eta bereganatutako finantza zamak mugatua.

Finantza egoera larria duten udalen ratioen emaitzak azaltzen ditugu segidan:

UDALA	D.G. - ZORRA	AURREZKI GORDINA	FINANTZ. ZAMA %
Elgoibar	(75.200)	34.594	%13,53
Deba	(75.846)	33.447	%10,41
Dima	(80.983)	16.205	%14,87
Zeberio	(85.355)	52.191	%36,18
Zestoa	(87.444)	25.370	%17,01
Urbil	(92.319)	74.143	%10,90
Lezo	(93.442)	23.313	%8,34
Villabona	(95.399)	31.633	%11,58
Bilbao	(96.037)	30.443	%7,55
Irura	(96.534)	54.823	%12,94
Bergara	(97.500)	33.919	%12,77
Orendain	(97.973)	78.167	%3,05
Legazpi	(91.300)	25.953	%12,28
Zumarraga	(105.788)	41.373	%14,50
Donostia-San Sebastián	(108.746)	43.725	%15,80
Oñati	(142.556)	54.628	%14,98
Navaridas	(144.009)	39.484	%15,94
Astigarraga	(155.236)	63.888	%8,81
Mutiloa	(343.247)	107.709	%6,54

- Gerakin baino zor gehiago izateagatik baliabide negatiboak sortu dituzten 119 udaletarako, zorra itzultzeko batez besteko epea adierazten dugu, baliabide negatibo horien eta azken hiru urtealdietako batez besteko emaitza arruntaren arteko koefiziente gisa lortua, bi suposamendu kontuan hartuta, alegia, gerakina zorra itzultzeko erabiltzen den ala ez.

TALDEA	Urte kop.		
